

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure negozioa aurrera eraman al izateko beharrezkoa ikusten dugu enpresa osatzen dugun lau bazkideez gain aliantzak egitea erakunde edo pertsona ezberdinekin. Itzultzaileen agentziak eta hizkuntzako unibertsitate batzuk gure hornitzaile nagusiak izango dira. Horretaz gain, bazkide bat enpresara gehitzen dena da, negozioak hazteko behar dituen baliabideak ematen dituen pertsona gisa.

Gure enpresa osatzen dugunon artean horrela banatu ditugu bakoitzak egin beharreko eginkizunak:

-Giza baliabideen saila: Unai bezeroekin hitz egingo du, beraiekin harremanak izango ditu eta edozein zalantza argituko die gure bezeroei. Gure enpresaren arazoak konpondu behar ditu. Enekok gure itzultzaileen kudeaketa egingo du enpresan, hau da, itzultzaileei deritzon lana emango die eta horien soldatak eta lan orduak kontrolatu.

-Merkataritza saila: Markel enpresaren irudiaz arduratuko da sare sozialak kontrolatzen eta publizitatea eginez. Beste enpresa batzuekin harremanetan jarri daiteke kolaborazioak egiteko.

-Inbertsio eta finantzen saila: Sasha, enpresaren kudeaketa ekonomikoaz arduratuko da, hau da, non inbertitu eta nondik atera dirua, gainera gastuak kontrolatu beharko ditu.

Horrela lauron artean enpresaren kudeaketa ona egingo dugu, eta arazoak gutxituko ditugu, hasieran guk bakarrik egingo ditugu lanak, baina gure enpresa hazten denean langileak kontratatzen hasiko gara gure kontuak eta beste gauza batzuk kudeatzeko, hala eta guztiz ere guk mantenduko dugu gure enpresaren norabidea eta kudeaketa estrategikoa, ez usteko enpresaren muina langile baten eskuetan.

